



SAHARARAKO ELIKAGAI BILKETA

DBH2KO IKASLEEK ANTOLATU DUTE OTSAILAREN 17RA ARTE

DBH2ko ikasleek Saharako egoera ezagutarazteko ekimena antolatu dute ikastolan.

Saharako egoera aztertu ondoren, urtero Euskal Herritik Saharara abiatzen den elkartasun karabanarako produktu bilketa ikastolan burutuko dute. Ekimena gelaz gela ezagutzera eman dute egunotan.

Bilketa otsailaren 17ra arte luzatuko dute, horretarako Ikastolako sarreran prestatu duten txoko batean eta HHko sarreran. Bertan ondorego jaki eta produktuak batuko dituzte: azukrea, konpresak eta kontserba latak.



SIRIA ETA TURKIARAKO LAGUNTZA BILKETA

DBH2ko ikasleak beraien ekimena zabalitzen ari zirela Siria eta Turkia astindu dituen lurrikara gertatu da eta elkartasun olatua ere hauspotu nahi izan dugu Ikastolan.

Izan ere, Ikastolako garraio zerbitzua burutzen duen Onieva enpresaren egoitzan Galdakaoko GBGE Gobernuz Kanpoko Erakunderako laguntza biltzen ari dira: neurri guztie-

tako pixoihalak eta haurtxoentzako janaria, paper-zapi buztiak, janari ez-galkorra eta egoera onean dauden arropa eta zapatak.

Ekarpenak Onievaren Aretako egoitzara eraman daitezke asteleheneretik ostiralera 10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 18:00etara edo Ikastolara ekarri eta Sahararako bilketa txokoaren ondoan utzi.